



Azpeitiko Udala

Para que así conste, se hace saber que el siguiente texto es una traducción del original, redactado en euskera (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).

**OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO,
AZPEITIKO UDALEKO IDAZKAR-
IAK.**

**OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, SE-
CRETARIA DEL AYUNTAMIENTO
DE AZPEITIA.**

ZIURTATZEN DUT: Herriaren Go-
bernu Batzordeak 2024ko maiatzaren 13an
egindako bilkuran honako hau dioen akor-
diora onartu zuen:

CERTIFICO que la Junta de Gobi-
erno Local, en sesión celebrada el día 13 de
mayo de 2024, adoptó el siguiente acuerdo:

**AZPEITIKO HAPO-REN 1 ALDE ZA-
HARRA H.E.RAKO PLAN BEREZIARI
HASIERAKO ONARPENA EMATEA
(2024PLAN0010).**

**APROBACIÓN INICIAL DEL PLAN
ESPECIAL DEL PGOU AU 1 ALDE ZA-
HARRA DE AZPEITIA (PLAN
20240010).**

Aurrekariak:

Antecedentes:

Azpeitian indarrean dagoen plangintza oro-
korra Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren
(HAPO) testu bateginak osatzen du. Testu
hori Udalbatzak onartu zuen behin betiko
2013ko irailaren 17ko bilkuran, eta Gipuz-
koako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen
2013ko irailaren 25eko 183. zenbakian,
2013ko urriaren 11ko 195. zenbakian eta
2013ko azaroaren 6ko 211. zenbakian.

El planeamiento general vigente en Azpeitia
se completa con el texto refundido del Plan
General de Ordenación Urbana (PGOU). Di-
cho texto fue aprobado definitivamente por
el Pleno en sesión celebrada el 17 de septi-
embre de 2013 y publicado en el Boletín Ofi-
cial de Gipuzkoa nº 183 de 25 de septiembre
de 2013, 195 de 11 de octubre de 2013 y 211
de 6 de noviembre de 2013.

Plan horrek udalerrri osoaren hirigintza-
arabide orokorra zehazten du, "1. Alde
Zaharra " Hirigintza Eremuarena barne.

Este Plan establece el régimen urbanístico
general de todo el municipio, incluido el
Área Urbanística 1 "Alde Zaharra".

Plan Orokor honen garapenean Udalak hi-
rigintza eremu honi dagokionez Plan Be-
rezi bat tramitatzea proposatu du, helburu
hauekin:

En desarrollo de este Plan General el Ayun-
tamiento propone la tramitación de un Plan
Especial en este ámbito urbanístico con los
siguientes objetivos:

1.- Eraikin horien teilatupeko solairuan
etxebizitza independenteak gaitzea eta
ezartzea, betiere horretarako beharrezkoak
diren baldintzak betetzen badira, bizigarri-
tasunari, irisgarritasunari eta abarri dagoz-

1.- Habilitar e implantar viviendas indepen-
dientes en la planta bajo cubierta de estos
edificios, siempre que se cumplan las con-
diciones necesarias para ello, incluidas las
de habitabilidad, accesibilidad, etc., así
como las disposiciones legales vigentes en



Azpeitiko Udala

kienak barne, eta baita gai honetan eta hiri-gintza-plangintzan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen badira, Plan Berezi hau barne.

2.- Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak aplikatzea, 10. artikuluan aurreikusitakoekin bat datozen salbuespenak barne, hiri-eremukoko morfologia bereziarekin lotutako baldintzatzaileek justifikatuta (lurzati-koa, eraikuntzakoa...).

3.- Bizitegi-eraikin horien fatxadetan hegalkinak baimentzea eta ezartzea, kale edo espazio publikoen zabaleratik edo sekziotik eratorritako baldintzak kontuan hartuta, besteak beste.

4.- Eraikin horietan dauden etxebizitzak zatitzea edo banantzea, eta irisgarritasun-baldintzak betetzea; horretarako, alde aurretik igogailuak jarri beharko dira.

5.- Bizitegi-eraikin horien estalkietan terrazak jartzea, haien baldintzak kontuan hartuta.

6.- Goiko kaleko 2., 4., 6. eta 8. partzelen hirigintza-araubidea berregokitzea eta/edo argitzea, beheko solairuan, kale horren parean, indarrean dagoen plangintzak aurreikusitako erabilera publikoko ataripea ezabatuz.

Eremuaren hiri-morfologiaren berezitasunak, gai horien inguruan dagoen problematikarekin batera, justifikatu egiten du esku hartzeko proposamen justifikatuak zehaztea eta, horretarako, Plan Berezi hau formulatzea. Eta hori guztia, kontu horiek guztiak batera kontuan hartuta eta proposamenak eremuaren berezko baldintzatzaile berezi-tara egokituta.

Azpeitiko Udalak sustatutako Plan Bereziaren dokumentua eta ingurumen-dokumentu

la materia y en el planeamiento urbanístico, incluido el presente Plan Especial.

2.- Aplicar las condiciones de habitabilidad de las viviendas establecidas en el Decreto 80/2022, de 28 de junio, con las salvedades que se correspondan con las previstas en el artículo 10, justificadas por condicionantes relacionados con la especial morfología del ámbito urbano (parcelario, edificatorio...).

3.- La autorización e implantación de vuelos en las fachadas de estos edificios residenciales, teniendo en cuenta, entre otras, las condiciones derivadas de la anchura o sección de las calles o espacios públicos.

4.- La división o segregación de las viviendas existentes en dichas edificaciones y el cumplimiento de las condiciones de accesibilidad, previa instalación de ascensores.

5.- Instalación de terrazas en las cubiertas de estos edificios residenciales en función de sus condiciones.

6.- Readecuar y/o clarificar el régimen urbanístico de las parcelas 2, 4, 6 y 8 de Goiko kalea, eliminando el porche de uso público previsto por el planeamiento vigente en planta baja, frente a dicha calle.

La singularidad de la morfología urbana del ámbito, unida a la problemática existente en estas materias, justifica la concreción de las propuestas justificadas de intervención, formulando para ello el presente Plan Especial. Y todo ello, teniendo en cuenta conjuntamente todas estas cuestiones y adaptando las propuestas a los condicionantes singulares propios del ámbito.

El documento del Plan Especial y el documento ambiental estratégico promovido por



Azpeitiko Udala

estrategikoa Santiago Peñalba Garmendia arkitektoak zuzendutako talde teknikoak idatzi du.

Oro har hartuta, eragindako eremuan indarrean dagoen hirigintza-araubidearen testuinguruan, Plan Bereziaren proposamene-tatik eratorritako eraginak puntualak eta mugatuak dira.

Helburuak dokumentu hauetan jaso dira:

- A) Plan Bereziaren egokitasuna deskribatzen eta justifikatzen duen memoria. Bertan hizkuntza inpaktuaren ebaluazioaren eta generoaren inpaktuaren ebaluazioaren dokumentuak jaso dira.
- B) Hirigintza arauak.
- C) Exekuzioa antolatze eta kudeatzeko jarraibideak
- D) Azterketa ekonomikoa.
- E) Egikaritze laburpena.
- F) Planoak
- G) Ingurumen Dokumentu Estrategikoa.

Plan Bereziak, gainera, ingurumen-dokumentu estrategikoa eta herritarrek parte hartzeko programa biltzen ditu, herritarrek eremu horretarako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren proposamenaren edukia eta irismena ezagutzen dituztela ziurtatzeko.

Udal-arkitektoak hirigintza-dokumentua aztertu ondoren, aldeko txostena egin du espedienteari hasierako onarpena emateko. Nola-nahi ere honako alderdiak kontuan izatea eskatu du:

Gaur egun, Udalak Goiko kalearen 2. zenbakian dagoen eraikin mugakidea erosi du, udal-bulegoak handitzeko. Hori dela eta, komenigarritzat jotzen da orube hori Udalarari atxikitako komunitate-ekipamenduko lurzati gisa sartzea.

el Ayuntamiento de Azpeitia ha sido redactado por el equipo técnico dirigido por el arquitecto Santiago Peñalba Garmendia.

Con carácter general, en el contexto del régimen urbanístico vigente en el ámbito afectado, las afecciones derivadas de las propuestas del Plan Especial son puntuales y limitadas.

Los objetivos se recogen en los siguientes documentos:

- A) Memoria descriptiva y justificativa de la idoneidad del Plan Especial. En ella se recogen los documentos de evaluación de impacto lingüístico y evaluación de impacto de género.
- B) Normas urbanísticas.
- C) Instrucciones para la organización y gestión de la ejecución.
- D) Análisis económico.
- E) Resumen de ejecución.
- F) Planos
- G) Documento Ambiental Estratégico.

El Plan Especial integra, además, el documento ambiental estratégico y el programa de participación ciudadana con el objetivo de asegurar que la ciudadanía conozca el contenido y alcance de la propuesta del Plan Especial de Ordenación Urbana para el citado ámbito.

El arquitecto municipal, tras analizar el documento urbanístico, informa favorablemente la aprobación inicial del expediente debiendo tener en cuenta los aspectos siguientes:

Actualmente este Ayuntamiento ha adquirido el edificio colindante, situado en Goiko kalea nº 2, para ampliar las dependencias municipales. Por este motivo se considera conveniente que se incluya este



Azpeitiko Udala

Plan Orokorren 50.1 artikulua ezartzen duenez, estalkipea "forjatuaren edo estalkiko taularen azpian dago zuzenean, eta fatxadaren azalera 1,80m-tik beherakoa da. Altuera hori gaindituz gero, goiko solairuaren izaera izango du. 50.2 artikulua ezartzen du udal-ordenantzek definizio horiek osatu eta/edo egokitu ahal izango dituztela.

"Alde Zaharra" 1. Hirigintza Eremuan, arau partikularrek eraikin berrien gehieneko altuera eta baimendutako profila ezartzen dituzte; horrela, teilatupea 1,80 metrotik gorakoak izan daitezke. Zirkunstantzia hori erregularizatzeko aldera, "Alde Zaharra" 1. Hirigintza Eremuko Plan Berezian honako hau sartzea proposatzen da:

Teilatupea: 1. hirigintza-eremuan ("Alde Zaharra"), estalkipekotzat hartuko da zuzenean forjatuaren edo estalki-aularen azpian dagoen solairua, fatxadaren azaleraren altuera edozein dela ere.

Azaldutakoa kontuan hartuta, xehetasun horiek izapidetu beharreko Plan Berezia onartzeko erabakian sartzea gomendatzen da.

Udalaren idazkariak, bere aldetik, honako hau dioen txostena egin du:

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa den ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikulua Plan Berezien antolamendu esparrua eta edukia arautzen du. Aztertzen ari garen Hiri-antolamendurako Plan Berezia honako helburua da Alde Zaharra 1 hirigintza-eremurako Plan Orokor hori garatzea, azaldutako helburuei eta jardura-neurri egokiak zehaztearekin lo-

solar como parcela de quipamiento comunitario, anexa al Ayuntamiento.

El art. 50.1 del Plan General establece que la bajocubierta es la "planta situada directamente bajo el forjado o tablero de cubierta, cuya altura en superficie de fachada resulta inferior a 1,80m, en caso de superar dicha altura tendrá el carácter de planta alta. El art.50.2 establece que las Ordenanzas municipales podrán completar y/o reajustar estas definiciones.

En el AU1 "Alde Zaharra" las normas particulares establecen la altura máxima de las nuevas edificaciones y el perfil autorizado, de manera que las bajocubiertas pueden resultar con una altura superior a 1,80m. Con el fin de regularizar esta circunstancia se propone que en el PE del AU1 "Alde Zaharra" se incluya lo siguiente:

Bajocubierta: En el AU 1 "Alde Zaharra" tendrá la consideración de bajo cubierta la planta situada directamente bajo el forjado o tablero de cubierta, independientemente de la altura resultante en superficie de fachada.

Teniendo en cuenta lo expuesto se recomienda introducir estos aspectos en el acuerdo de aprobación del Plan Especial a tramitar.

Por su parte, la Secretaria del Ayuntamiento emite el siguiente informe:

El artículo 69 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, regula el ámbito y contenido de la ordenación de los Planes Especiales. El Plan Especial de Ordenación Urbana que nos ocupa tiene como objetivo el desarrollo de este Plan General para el Área Urbanística 1 Alde Zaharra, atendiendo a los objetivos expuestos y a los relacionados



Azpeitiko Udala

tutako helburuei erantzuteko (ebazpen hone-tan zerrendatutakoak eta Udalaren arkitek-toak proposatutakoak).

Plan Berezia onartzeko prozedurari dagoki-onez, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32. artikuluan eta ho-nekin bat datozen artikuluek ezarritako tra-mitazioa jarraituko da.

1.- Plan Berezia ingurumen-ebaluazio estra-tegikoaren hasierako eskabidearekin eta in-gurumen-dokumentu estrategikoarekin ba-tera ingurumen-organoa bidaliko da, ingu-rumen ebaluazioaren prozedura sinplifikatua tramitatu.

Baldin eta ingurumen-organoak erabakitzen badu ez dela aurreikusten plan bereziak in-gurumenean ondorio nabarmenik izango du-enik, planaren izapidetzeak aurrera egingo du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekai-naren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorrit.

Bestela, txostenak xedatuko du plana ingu-rumen-ebaluazio estrategiko arruntaren era-ginpean jarri behar dela. Kasu horretan, In-gurumen-organoak ingurumen azterketa es-trategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta dokumentu horren berri emango dio udalari.

2.- Plan Bereziari hasierako onarpena emango zaio. Izan ere, Dekretuaren 31.3 ar-tikuluak jasotzen du hasierako onarpena in-gurumen-txosten estrategikoa egin eta ingu-rumen-organoak hura jaso aurretik eman ahal izango dela. Plana hasieran onartzeko erabakiak espresuki adieraziko du onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitza-

con la definición de las medidas de actuación adecuadas (relacionados en esta Resolución además de los propuestos por el arquitecto municipal)

En cuanto al procedimiento de aprobación del Plan Especial, se seguirá la tramitación establecida en el artículo 32 y concordantes del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, por el que se regula el procedimiento de aproba-ción de los planes de ordenación territorial e instrumentos de ordenación urbanística.

1.- El Plan Especial se remitirá al órgano am-biental junto con la solicitud inicial de eva-luación ambiental estratégica y el docu-mento ambiental estratégico, tramitando el procedimiento simplificado de evaluación ambiental.

En el caso de que el órgano ambiental deter-mine que no se prevén efectos significativos del plan especial sobre el medio ambiente, la tramitación del plan continuará de acuerdo con lo previsto en los artículos 95 y siguien-tes de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

En caso contrario, el informe determinará que el plan debe someterse a evaluación am-biental estratégica ordinaria. En este caso, el órgano ambiental elaborará y notificará al ayuntamiento el documento de alcance del estudio ambiental estratégico.

2.- El Plan Especial será aprobado inicial-mente. De hecho, el artículo 31.3 del De-creto contempla que la aprobación inicial podrá realizarse con anterioridad a la emi-sión del informe ambiental estratégico y su recepción por el órgano ambiental. El acu-erdo de aprobación inicial del plan indicará expresamente que la aprobación depende del resultado del informe ambiental estratégico.



Azpeitiko Udala

ren baitan dagoela. Horrez gain, kontsolidatua dagoen auzo bati dagokionez herritarren partehartze programa bat bideratuko da.

Hasierako onarpena eman ondoren, espedientearen jendaurrean jarriko da gutxienez hogeiguneko epean, eta honen berri lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan emango da, azken argitalpenetik zenbatzen hasita. Horrez gain, beren eskumen sektorialak direla eta, proiektatutako jarduerak funtsean eragin diezaiekeen interes publikoak kudeatzen dituzten organismo edo erakundeei txostena egitea eskatuko zaie.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasierako onarpenarekin eten egingo da Plan Bereziaren mugaketan mota guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea, baldin eta indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatu bada planean xedatutakoaren ondorioz. Etete horrek urtebeteko iraupena izango du.

Herriaren Gobernu Batzordearen eskumena izango da Plan Bereziaren hasierako onarpena eman eta partehartze programa onartzea. Alkatetzak 2023ko ekainaren 20an emandako delegazio-ebazpena kontuan izanik.

Gaia Estrategia eta Hirigintza batzordean irizpidetu ondoren, Herriaren Gobernu Batzordeak aho batez hartutako erabakiarekin **ADOSTU DU:**

Lehen: Honako xehetasunak sartzea dagokigun Plan Berezian:

- Goiko kaleko 2an dagoen orubea ekipamendu komunitario gisa sartzea, Udalari atxikita.

Además, se articulará un programa de participación ciudadana en un barrio consolidado.

Una vez aprobado inicialmente, el expediente se someterá a información pública, por un plazo no inferior a veinte días, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico y en el diario o diarios de mayor tirada del territorio, a contar desde su última publicación. Además, por razón de sus competencias sectoriales, se solicitará informe a los organismos o entidades que gestionen los intereses públicos que puedan verse sustancialmente afectados por la actividad proyectada.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 85.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, con la aprobación inicial se suspenderá el otorgamiento de todo tipo de aprobaciones, autorizaciones y licencias en la delimitación del Plan Especial, siempre que se haya modificado el régimen urbanístico vigente como consecuencia de lo dispuesto en el mismo. Dicha suspensión tendrá una duración de un año.

Será competencia de la Junta de Gobierno Local la aprobación inicial del Plan Especial y la aprobación del programa de participación. Teniendo en cuenta la resolución de delegación de Alcaldía de 20 de junio de 2023.

Una vez dictaminado la propuesta de tramitación del Plan Especial por la Comisión de Estrategia y Urbanismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, **ACUERDA:**

Primero.- Introducir estos aspectos en el Plan Especial a tramitar:

- Incluir el solar situado en Goiko kalea, 2 como equipamiento comunitario, anexo al Ayuntamiento.



Azpeitiko Udala

- Eremu honetako arau partikularrak erregularizatzea, estalkipekotzat hartuz zuzenean estalkiaren forjatuaren edo taularen azpian dagoen solairua, fatxadaren azaleraren ondoriozko altuera edozein dela ere.

- Regularizar las normas particulares en este ámbito incluyendo la consideración de bajo cubierta a la planta situada directamente bajo el forjado o tablero de cubierta, independientemente de la altura resultante en superficie de fachada.

Bigarrena: Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 1 Alde Zaharra H.E. eremurako Hiri-Antolaketarako Plan Berezia, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasierako eskabidearekin eta ingurumen dokumentu estrategikoarekin batera, ingurumen-organora bidaltzea, honek hiru hilabeteko epean dagokion ingurumen txosten estrategikoa eman dezan.

Segundo: Remitir al órgano ambiental el Plan Especial de Ordenación Urbana del Área Urbanística 1 Alde Zaharra del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia, junto con la solicitud inicial de evaluación ambiental estratégica y el documento ambiental estratégico, para que en el plazo de tres meses se formule el correspondiente informe ambiental estratégico.

Hirugarrena.- Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 1 Alde Zaharra H.E. eremurako Hiri Antolaketarako Plan Bereziari **HASIERAKO onarpena** ematea. Ohartarazi nahi da, Hirigintza dokumentuari emandako onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan izango dela.

Tercero.- Aprobar INICIALMENTE el Plan Especial de Ordenación Urbana del Área Urbanística 1 Alde Zaharra del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia. Se advierte que la aprobación del documento de Urbanismo dependerá del resultado del informe ambiental estratégico.

Plan Berezia izapidetzeko prozesuarekin batera, Eranskin 1 bezala jaso den herritarren parte-hartzeari buruzko programa emango da, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea izan dezaten beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta jarraibideak jasotzen dituen.

Junto con el proceso de tramitación del Plan Especial, se impartirá el programa de participación ciudadana que figura como Anexo 1, que recoge los objetivos, estrategias y directrices necesarias para que la ciudadanía y las asociaciones tengan derecho a participar.

Herritarrek parte hartzeko programaren oinarrizko helburua da ziurtatzea Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Alde Zaharra 1. HEko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren proposamenaren edukia eta irismena ezagutzen dituela herritarrek, eta Udal-Gorporazioari horren gaineko iritzia jakinarazi ahal izatea. Alde horretatik, programaren eginkizuna da parte-hartzearen inguruko helburu espezifiko batzuk betetzen direla bermatzea. Honako hauek dira helburu horiek:

El objetivo básico del programa de participación ciudadana es asegurar que la ciudadanía conoce el contenido y alcance de la propuesta de Plan Especial de Ordenación Urbana del Área Urbanística 1 Alde Zaharra del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia y poder trasladar su opinión al respecto a la Corporación Municipal. En este sentido, el programa tiene como misión garantizar el cumplimiento de unos objetivos específicos de participación. Estos objetivos son los siguientes:



Azpeitiko Udala

- Informazioa ematea parte hartzeko eskubideaz eta eskubide hori erabiltzeko moduz.

- Parte-hartzea eta informatzeko eta interesa dutenei ekarpenak egiteko bide eskuragarriak ematea.

Partizipazioa ahalbidetzen duten elementuak bi ordenatakoak dira. Lehenik eta behin, lege-araudiak nahitaez bete behar dituen ekintzak daude, eta, bigarrenik, are eragin-korragoa izan dadin proposatzen diren partaidetza-ekintza osagarriak daude.

Laugarrena.- Espedientea jendaurrean jarzea hogeit egunez, ediktu bidez. Ediktu horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean argitaratuko dira, azken argitalpenetik aurrera. Horrez gain, Plan Bereziaren dokumentua eta tramitean dagoen ingurumen dokumentu estrategikoa Udalaren web orrian argitaratuko dira. Epe horretan, espedientea idazkaritza-bulegoetan egongo da ikusgai, jendaurreko ordutegian.

Bosgarrena.- Beren eskumen sektorialak direla eta, interes publikoak kudeatzen dituzten erakunde edo entitateei txostena egiteko eskatzea, baldin eta proiektatutako jarduerak nabarmen eragin badiezaieke. Hona hemen egingo diren eskaerak:

1.-Telekomunikazioak arautzen duen maiatzaren 9ko 9/2014 Legearen baitan (legearen 35.2 artikulua).

2.- Zortasun aeronautikoei buruzkoa den 589/1972 Dekretuaren (legearen 29. artikulua)

3.- Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea (Legearen 5 artikulua).

- Informar sobre el derecho de participación y la forma de ejercerlo.

- Facilitar la participación y canales accesibles de información y aportación a las personas interesadas.

Los elementos que permiten la participación son de dos órdenes. En primer lugar, hay acciones de obligado cumplimiento por la normativa legal y, en segundo lugar, hay acciones de participación complementarias que se proponen para hacerla aún más eficaz.

Cuarto.- Someter el expediente a información pública por veinte días mediante edictos. Estos edictos se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor difusión en el territorio histórico, a partir de su última publicación. Además, el documento del Plan Especial y el documento ambiental estratégico en trámite se publicarán en la página web del Ayuntamiento. Durante este plazo, el expediente estará expuesto en las oficinas de secretaría en horario de atención al público.

Quinto.- Solicitar informe a los organismos o entidades que gestionen intereses públicos por razón de sus competencias sectoriales, siempre que la actividad proyectada les pueda afectar de forma significativa. Las solicitudes a realizar son las siguientes:

1.-En el marco de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, reguladora de las comunicaciones (artículo 35.2 de la Ley).

2.- En el marco del Decreto 589/1972 sobre Servidumbres Aeronáuticas (artículo 29 de la Ley)

3.- En el marco de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico (artículo 5 de la Ley).



Azpeitiko Udala

4.- Ura arautzen duen ekainaren 23ko 1/2006 Legearen baitan, Ura Ur Agentziari txostena egitea eskatuko zaio (Legearen 7. artikulua).

5.- Lurzoru legea eta hiri-birgaitzea onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren baitan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari -Gipuzkoako Urak txostena eskatzea planaren edukia jasotzen dituen eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide hidrikoak badaudela ziurtatzeko (Legearen 22. artikulua).

6.- Gipuzkoako Bideak eta Errepideei buruzko Foru Arauaren testuategina onartzen duen ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemailearen baitan GFaren Bide Azpiegiturak Sailari txostena egitea eskatuko zaio (Foru Dekretuaren 93. artikulua eta hurrengoak).

7.- Euskal Kultura Ondarea arautzen duen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen baitan, Eusko Jaurlaritzan kultura eskumena duen sailari txostena egitea eskatuko zaio (legearen 47. artikulua).

Horrez gain, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuateginaren baitan proposatu den planenamenduan genero-ikuspegia txertatzen dutela bermatzen den txostena egin beharko du Udalaren Parekidetasun Sailak, eta, hala badagokio, hobekuntza-neurriak proposatu.

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren esparruan, Azpeitiko Euskara Patronatuko eta Azpeitiko

4.- En el marco de la Ley 1/2006, de 23 de junio, Reguladora del Agua, se solicitará informe a la Agencia del Agua (artículo 7 de la Ley).

5.- En el marco del Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana, solicitar al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa – Gipuzkoako Urak la emisión de informe sobre la existencia de recursos hídricos necesarios para atender las nuevas demandas recogidas en el contenido del Plan (artículo 22 de la Ley).

6.- En el marco del Decreto Foral Normativo 1/2006, de 6 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral de Caminos y Carreteras de Gipuzkoa, se solicitará informe al Departamento de Infraestructuras Viarias de la DFG (artículos 93 y siguientes del Decreto Foral).

7.- En el marco de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, del Patrimonio Cultural Vasco, se solicitará informe al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura (artículo 47 de la ley).

Además, el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento deberá elaborar un informe que garantice la integración de la perspectiva de género en el planeamiento propuesto en el marco del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para las Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y, en su caso, proponer medidas de mejora.

En el marco del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, expertos técnicos multidisciplinares



Azpeitiko Udala

Udaleko Hirigintza Saileko diziiplina anitzeko teknikari adituek elkar-lanean ebaluatuko dute proiektatutako jarduerak euskararen erabileraren normalizazioan izan dezakeen eragin linguistikoa (50. artikulua).

Irigarritasuna arautzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legea kontuan izanik, Hirigintza-plangintzako tresnak behar bezala bermatuko du urbanizazio-elementuen eta hiri altzarien irigarritasuna.

Seigarrena: Plan Bereziaren xede den lurralde-eremuan eten egingo dira mota guzti-etako onarpen, baimen eta lizentziak onartzea, beti ere planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan badituzte. Etendura horrek urte beteko iraupena izango du. gehienez urte bete edota planari behin betiko onarpena eman arte, hori urte bete baino lehenagokoa bada.

Eta horrela jaso gera dadin eta, Alkate Udalburuaren on eritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita batean.

O.E.
ALKATEA,

del Patronato de Euskera de Azpeitia y del Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento de Azpeitia evaluarán conjuntamente la incidencia lingüística que la actividad proyectada pueda tener en la normalización del uso del euskera (artículo 50).

Teniendo en cuenta la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, reguladora de la accesibilidad, el instrumento de planeamiento urbanístico garantizará la accesibilidad de los elementos de urbanización y mobiliario urbano.

Sexto: En el ámbito territorial objeto del Plan Especial se suspenderá la aprobación de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias que hayan sufrido modificaciones en el régimen urbanístico vigente como consecuencia de lo dispuesto en el mismo. Esta suspensión tendrá una duración de un año, como máximo hasta el cumplimiento de un año o hasta la aprobación definitiva del plan, si ésta fuera anterior.

Y para que así conste, expido el presente de orden y con el visto bueno de la Alcaldía Presidencia en la villa de Azpeitia a veintiuno de mayo de dos mil veinticuatro.

Vº Bº
EL ALCALDE,

